

ALKATEAREN DEKRETUA 0251/2025

Herritarren lan-arloko zinegotzi koordinatzaileak 2025erako irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako dirulaguntzen deialdia onartzea eskatu du, norgehiagokaren bidez.

AURREKARIAK

Lehena.- Udalbatza Osoak "Erandioko Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza orokorra" onartu zuen 2024ko otsailaren 29an izandako ohiko batzaraldian, Administrazio honetan aplikatu beharreko esparru juridikoa eta irizpideak ezarriz.

Bigarrena.- Aipatu Ordenantza Orokor horren behin betiko onarpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2024ko martxoaren 13ko 52. zenbakian.

ONARRI JURIDIKOAK

Lehena: Abenduaren 17ko 38/2003 Legea, Dirulaguntzen Orokorra, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, 38/2003 Legearen gaineko Araudia onartzen duena.

Bigarrena: Honako lege-xedapen hauetan ezarritakoa: 11/99 Legea, apirilaren 21ekoa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legea aldarazten duena, 781/86 Errege Dekretua, apirilaren 18koa eta 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (artikuluak: 114.1, 123 eta 124).

HONAKO HAU EBAZTEN DUT**LEHENENGOA**

Erandioko Udalaren herritarren lan-arloko dirulaguntzak emateko 2025eko deialdia onartzea. Dirulaguntza horiek irabazi-asmorik gabeko erakundeei emango zaizkie, norgehiagoka-araubidearen bidez, eta gizarte-ekintzaren, hezkuntzaren, kulturaren eta jarduera fisikoaren eta kirolaren esparruan jarduerak garatzen dituzten elkarteei zuzenduta egongo dira.

Deialdi hau Erandioko Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza orokorrean ezarritakoarekin bat etorritik eman da (testu osoa: 2023ko abenduaren 21eko BAO, 243 zk.), bai eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoarekin ere.

BIGARRENA

FINANTZAKETA ETA DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN LERROAK

Dirulaguntza jaso ahal izango du Erandion* bere helbide soziala edota bizileku iraunkorra duen irabazi asmorik gabeko edozein elkarte eta, kasuan kasu, pertsona fisikok, beti ere kultura, kirola, hezkuntza edo gizarte-izaerako egitasmoren bat garatzen bada.

Ekimen horiek, Erandioko Dirulaguntzen Ordenantzako 14. artikularen arabera, Erandio Udalerrriaren interesekoak izan behar dira.

Eskatzailea Elkarre edo Fundazio izaera duen erakunde izanez gero, Eusko Jaurlaritzako Elkarre Erregistroan eta Erandioko Elkarre Udal Erregistroan inskribatuta egon beharko da.

Salbuespen gisa, egoitza soziala Erandion izateko betekizuna alde batera utzi ahal izango da, jardueraren zati nabarmen bat udalerrriaren eremuan egiten bada edo udalerriarantzat interesgarria bada.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 23.b) artikuluan ezartzen denez, deialdiari hasiera emateko: ***“dirulaguntza zein aurrekontu-kredituri egotzen zaion, eta deialdiko dirulaguntzen gehieneko zenbateko osoa, kreditu erabilgarrien barruan, edo, halakorik ezean, dirulaguntzen zenbatetsitako zenbatekoa”*** adierazi beharko da.

Hori horrela, deialdi honetako aurrekontu-partida bakoitzari dagokion zenbatekoa hasierako zenbatespen bat besterik ez da, eta horietako bakoitzaren behin betiko zenbatekoa Udalaren urteko aurrekontuetan onartutakoa izango da.

Erandioko Udalaren dirulaguntza lerroak**1. lerroa: *Gizarte Ekintza* arloko dirulaguntzak - garapenerako lankidetzak**

- Dirulaguntzaren helburua: Garapen bidean dauden herrialdeetako lankidetzak eta sentsibilizazio jarduerak barne hartzen dituzten ekimenak diruz laguntzea, Erandioko udalerrian konpromiso solidario eta aktiboa sustatuz.
- Erakunde onuradunak: Bizkaian egoitza soziala duten legez eraturako elkarre eta fundazioak, deskribatutako ekimenak sustatzen edo gauzatzen dituztenak.
- Finantzazioa: 41.400,00 euroko aurrekontu-kredituaren zenbatespena dute, 33-2311-49001 aurrekontu-partidaren kargura.

* Garapenerako Lankidetzak laguntza lerroan Bizkaiko eskatzaileak ere onartuko dira

2. lerroa: *Kultura* arloko dirulaguntzak

- Dirulaguntzen helburua: kultura-sorkuntza eta zabalkundea sustatzea, egitasmoak babestea eta auzo guztietara zabaltzen laguntzea.
- Erakunde onuradunak: egoitza Erandion duten eta udal-intereseko kultura-ekimenak egiten dituzten elkarre eta fundazioak, legez eratuak, eta, salbuespen gisa, norbanakoak,

- Finantzazioa: 64.000,00 euroko aurrekontu-kredituaren zenbatespena dute, 36-3341-48103 aurrekontu-partidaren kontura.

3. *lerroa: Hezkuntza arloko dirulaguntzak*

- Dirulaguntzaren helburua: Udalerrian egiten diren hezkuntza arloko egitasmoak garatzen laguntzea.
- Onuradunak: Erandioko ikastetxeak, ikastetxeetako guraso elkarteak eta deskribatutako egitasmoak euskara hutsean burutzen dituzten Erandioko bestelako erakundeak.
- Finantzazioa: 45.250,00 euroko aurrekontu-kredituaren zenbatespena dute, 37-3201-48112 aurrekontu-partidaren kargura.

4. *lerroa: jarduera fisikoa eta Kirol arloko dirulaguntzak*

- Dirulaguntzen helburua: udalerriko kirol-erakundeen urteko programazioa garatzen laguntzea, Eta udalaren interesezkotzat jotzen diren egitasmoak finantzatu
- Onuradunak:
 - a) Egoitza soziala Erandion duten irabazi asmorik gabeko legez eraturako elkarte eta erakundeak, jarduera fisikoa eta kirola sustatzen duten ekimenak egiten dituztenak, bai eta udalerrian errolatutako pertsona fisikoak ere, irabazi asmorik gabeko ekimenak egiten badituzte Erandioren izenean edo herritarren mesedetan.
 - Finantzazioa: 106.0000,00 euroko aurrekontu-kredituaren zenbatespena dute, 35-3411-48107 aurrekontu-partidaren kargura.
 - b) Norbanako kirolariak
 - Finantzazioa: 7.0000,00 euroko aurrekontu-kredituaren zenbatespena dute, 35-3411-48006 aurrekontu-partidaren kargura.

HIRUGARRENA

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN XEDEAK

Oro har, egitasmoak (proiektuak) baino ez dira diruz lagunduko, hau da, elkarrekin erlazionatuta eta koordinatuta dauden jarduera zehatzen multzo bat, iraupen jakinekoa eta helburu espezifiko bat lortzera bideratua. Inola ere ez dira diruz lagunduko jarduera isolatuak.

LAUGARRENA

DIRULAGUNTZA MOTAK

Deialdi honetan jasotako dirulaguntzak arruntak eta urtekoak dira, eta lehiaketa-prozeduraren bidez emango dira.

BOSGARRENA

DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOAK

Elkarteek aurkeztutako egitasmo bakoitzeko dirulaguntzaren zenbatekoa zehazterakoan kontuan izango da lortutako puntuazioa eta udal sail/atal bakoitzaren behin betiko aurrekontua.

Balorazioak egindakoan, behin-behineko dirulaguntzen kopuru guztien batuketak sailaren aurrekontua baino baxuagoa balitz, hiruko erregela bat aplikatu eta soberakina guztien artean hainbana liteke.

Aukera alternatibo gisa, baldin eta dirulaguntza-eskarien zenbatekoa hasieran aurreikusitako gastua baino txikiagoa bada, kreditu soberakinen transferentzia egitea erabaki daiteke eta gehieneko beste zenbatekoak handitu, beste deialdi bat egin behar izan barik. Era berean, aurrekontuko kredituen zenbatekoa handitu egin daiteke kredituak gehitu, gaitu edo sartzearen ondorioz. Arestian ezarritako hori gauzatzeko ezinbesteko baldintza izango da aurrekontuetan kreditu nahikoa egotea eta, bidezkoa izanez gero, dirulaguntza emateko erabakia hartu aurretik aurrekontuari dagokion kreditu aldaketa onartzea.

Araudi honetan oinarrituta emandako dirulaguntzak eta helburu berberaz beste erakunde publiko nahiz pribatuko emandakoak bateragarriak izango dira, baina ezingo da jaso diruz lagundutako egitasmoa burutzeko aurrekontuan adierazitakoa baino diru gehiago. Hori gertatuz gero, eman beharreko dirulaguntza murriztu egingo da, diruz lagundutako proiektuaren kostu osoaren mugaraino. Gerora jardueraren finantzaketaren gaineko bat sortzen bada eta gainfinantzaketaren ondoriozko itzulketa-betebehar bat baino gehiago gertatzen bada, erakunde onuradunak dagokion zenbateko proportzionala itzuliko du, Erandioko Udalak egin duen guztizkoaren gaineko ekarpenaren arabera.

SEIGARRENA

ESKABIDEAK AURKEZTEA

Eskabidea Erandioko Udaleko alkate-udalburuari zuzenduko zaio eta Erandioko Udalaren egoitza elektronikoen bidez aurkeztuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan jasotakoaren arabera, 30 egun naturaleko epearen barruan, deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Tramite-bide hori errazteko, eskabide elektronikoa egiteko eragozpenik edo zalantzarik izan dezaketen kasuan, Udalak laguntza zerbitzua eskainiko du.

Erakundeak honako dokumentazioa aurkeztu beharko du:

a) Entitate edo elkartearen datuak biltzen dituen **FORMULARIO ELEKTRONIKOA** ([DIRULAGUNTZA FORMULARIOA – A](#)).

b) Proiektuaren zehaztasunak jasotzen dituen **FORMULARIO ELEKTRONIKOA**, behar bezala beteta eta, gutxienez, honako hauek jasota ([DIRULAGUNTZA FORMULARIOA – B](#)):

- Proiektuaren helburua(k)
- Hartzaile edo onuradunaren inguruko argibideak
- Egutegia edo/eta kronograma

- Giza baliabideak, baliabide teknikoak,
 - Proiektuaren deskribapen laburtua edo/eta proiektuaren deskribapen xehatua jasotzen duen dokumentua (artxibo erantsiaren bidez).
- c) Erandioko Udalak kontsulta egingo die zuzenean beste administrazioei eskatzaileak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekin betebeharrak egunean dituela egiaztatzeko. Horrek ezezkoa emango balio, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.
- d) Dirulaguntzaren onuradun izateko egoeran egotearen berariazko erantzukizunpeko adierazpena.
- e) Banku entitate edo aurrezki erakunde batek emandako dokumentua (hala behar izanez gero), kontu korrontearen titulartasuna egiaztatzen duena (A formularioan).
- Erakundeak dirulaguntza **lehen aldiz** eskatzen badu, aurreko guztiaz gain, honakoa aurkeztu beharko du:
- f) Nortasunaren egiaztagiria (pertsone fisikoaren kasuan).
- g) Identifikazio Fiskaleko kodea.

ZAZPIGARRENA

ESKAERAK BAZTERTZEA

Ez dira kontuan hartuko epe kanpo aurkeztutako eskabideak, tramitazio elektronikoaren bidez aurkeztu ez direnak, dirulaguntza lerro bakoitzean diruz lagun daitezkeen xedeekin bat ez datozenak, ezta Erandioko Udalak aurretik emandako dirulaguntzak egiaztatzeko agiriak aurkeztu gabe dituen eskatzaileek aurkeztutakoak ere.

ZORTZIGARRENA

OSATU GABEKO EDO OKERREKO ESKAERAK

Eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentazioak zerbait falta badu edo konpontzeko moduko hutsik izanez gero, hutsak zuzentzeko deia egingo zaio eskatzaileari. Horretarako, gehienez ere 10 laneguneko epea izango du eskatzaileak, hutsak zuzentzeko adierazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatuta. Horrela egin ezean, eskabidea bertan behera geratuko da.

BEDERATZIGARRENA

INSTRUKZIOA ETA EBAZPENA

Oinarri espezifiko hauetan jasotako laguntzak emateko organo instruktorea dirulaguntzaren xede den lan-arloari dagokion sail bakoitzeko teknikariek osatuko dute, edo, hala badagokio, horretarako izendatutako pertsonak.

Ebazpen-proposamena egiteko organo eskuduna Dirulaguntzak Balioesteko Batzordea izango da, eta honako sail hauetako teknikariek osatuko dute: herritarren lan-arloa,

hizkuntza-normalizazioa, berdintasuna, gizarte ekintza, hezkuntza, kultura eta kirola, aisia eta ohitura osasungarriak.

Alkatetza da dirulaguntzak ebazteko aginpidea duen organoa. Erabakia hartu eta jakinarazpena egiteko epea hiru hilabeteko izango da, beti ere baldin eta urteko udal-aurrekontuak onartu edo luzatu badira. Epea deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da.

Dirulaguntzaren emakidari buruzko ebazpenean honako alderdi hauek agertuko dira:

- Zein eskatzaileri emango zaion dirulaguntza.
- Gainerako eskabideen ezeste arrazoitua.
- Dirulaguntza emateko erabilitako xedapena.
- Dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa-modua eta -epeak.
- Bidezko errekursoak, horiek aurkezteko organoak eta horretarako epea.

Edozein kasutan ere, gerta daiteke dirulaguntza emateko baldintzak aldatzea edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuek lehiaketa bidez eman ohi dituzten laguntzak edo dirulaguntzak lortzea, gain-finantzazioa sortuz; halakoetan, horrek berekin ekar dezake emandako ebazpena aldatzea eta, hala badagokio, emandako dirulaguntza itzuli behar izatea.

Behin dirulaguntzari buruzko ebazpena emanda, pertsona edo erakunde onuradunak horren edukiaren aldarazpena eskatu ahal izango da honako arrazoiak direla eta:

1. Onuraduna izateko beharrezko beharkizunak funtsean aldatu direlako.
2. Dirulaguntza arrazoitu duten zirkunstantzia objektiboak aldatu direlako.
3. Dirulaguntza eskuratzeko pertsona edo erakunde onuradunek aurkeztutako proiektuak aldatu direlako.

Ebazpena aldatzeko eskabidea jarduera egin baino lehenago aurkeztu behar izango da.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak emango dio amaiera administrazio bideari. Gehieneko epea igaro eta ebazpen adierazia interesatuei jakinarazi ez bazaie, eskaria administrazio-isiltasunez ezetsi dela ulertuko da.

HAMARGARRENA

JAKINARAZPENA ETA ARGITARA EMATEA

Ebazpena emanda, pertsona edo erakunde onuradunei jakinarazi egin beharko zaie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen (urriaren 1eko 39/2015 Legea) 40. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera.

Erandioko Udalak dirulaguntzak eman ahal izateko, emakidaren azalpena eman beharko du udaleko iragarki taulan, eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko du ebazpenaren laburpen bat, eduki osoa jendaurrean zein tokitan dagoen adieraziz; hori guztia Erandioko udalaren webgunean ere emango da argitara.

HAMAIKAGARRENA

DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEA

Dirulaguntzaren xede den jarduerari dagokion zuriketa egin aurretik egin daiteke bidezko den ordainketa. Horretarako ezinbestekoa da onuradunak dirulaguntza aurreratzeko eskaria egitea, eta egingo dituen jarduera guztien aurrekontu zehatza aurkeztea. Ez da inolako bermerik eskatuko.

Dirulaguntza emateko erabakia hartu eta 45 eguneko epearen barruan egingo du Udalak bidezko den ordainketa, onuradunak eskaera-formularioan adierazitako banketxeko kontu zenbakian.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da ordainduko honako kasu hauetan:

- Onuradunak zerga zorrak edota Gizarte Segurantzarekiko zorrak egunean ez dituenean.
- Itzulketa egiteko ebazpena dela-eta zorduna denean.
- Aurreko dirulaguntzaren bat epearen barruan justifikatu ez duenean.

HAMABIGARRENA

DIRULAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA

Onuradunak ondoren adieraziko diren agiriak aurkeztu beharko ditu jaso duen dirulaguntza justifikatzeko, 2026ko urtarrilaren 31 amaitu baino lehen:

- Diruz lagunduriko ekimena bukatzen denean, dokumentu bat entregatu beharko da dirulaguntza behar bezala erabili dela ziurtatzeko.
- Nahitaez bide elektronikoa erabili beharko dute horretara behartuta dauden pertsona eta erakundeek (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 legearen 14. artikulua): besteak beste, pertsona juridikoek eta izaera juridikorik gabeko erakundeek.
- Horretarako, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Garatutako egitasmoaren memoria deskribatzailea eta ekonomikoa, eredu ofizialaren arabera (IV. Eranskina). Bertan, proiektuaren garapenaren deskribapen laburtua jasoko da, eta, gutxienez, honako hauek azalduko dira: aurreikusitakoaren arabera egin den, proiektua garatzeko izan diren laguntzak eta zailtasunak, aurreikusitako jarduketan izan daitezkeen aldaketak, hartzaileen kopurua eta ezaugarriak, helburuen lorpen-maila eta diru-sarreraren eta gastuen balantzea.
- Egitasmoa gauzatzeko egindako gastu guztiak jasotzen dituen justifikazioa-kontua (V. Eranskina),

Erandioko Udalak diruz lagundutako zenbatekoari dagozkionez, fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan balioa duten beste edozein agiri baliokideren bidez justifikatu behar da.

Aurkeztu beharreko egiaztagiri guztiek dirulaguntza ematen den ekitaldi ekonomikoaren data izan beharko dute.

- c) Diruz lagundutako egitasmo edo ekitaldia dela-eta editatu edo argitaratu diren liburuxka, kartel, liburu, bideo eta abarren ale bana ematea.
- 4. Egitasmoa beste edozein erakunde publiko edo pribatuk beste laguntza edo baliabide batzuekin batera ere finantzatu badu, justifikazioaren parte gisa egiaztatu beharko da funts horiek bidezkoak direla eta diruz lagundutako egitasmoak erabili direla. (IV. eranskina).
- 5. Dirulaguntza egiaztatze eskumena duen organoak beste edozein dokumentu eska dezake dirulaguntzaren erabilera egokia eta diruz lagundutako ekimenaren garapena egiaztatze.
- 6. Dirulaguntza egiaztatze eskumena duen organoak ikusten badu zuzentzeko moduko akatsak daudela onuradunak egindako zuriaketan, horren berri emango dio, eta hamar eguneko epea emango dio zuzentzeko.

HAMAHIRUGARRENA

JUSTIFIKATZEKO ZENBATEKOA

Egitasmoa edo laguntzaren xedea den objektua gauzatzeko egindako gastu guztiak justifikatuko dira, hamabigarren atalean adierazitako moduan, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikuluaaren arabera.

Aurrekontu-partidaren zenbatekoa proiektu bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera behin-behineko dirulaguntzen guztizko zenbatekoa estaltzeko nahikoa ez bada, eta onartutako partidara egokitze eman beharreko kopurua murriztu bada, justifikatu beharreko guztizko aurrekontua, gehienez ere, proportzio berean murriztu ahal izango da.

HAMALAU GARRENA

ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Lehena.- Legeriak edo deialdi zehatz bakoitzak eska ditzaketenez gain, Erandioko Udalak emandako dirulaguntza baten onuradunak diren erakunde edo norbanakoek ezinbestean bete beharko dituzte honako hauek:

- a) Helburua betetzea, egitasmoa gauzatzea, aurreikusitako jarduerak eginez eta/edo dirulaguntza ematea funtsatzen duen jokabidea hartuz.
- b) Organo eskudunaren aurrean justifikatzea betekizunak eta baldintzak bete direla, bai eta egitasmoa egin dela eta dirulaguntza ematea edo baliatzea eragin duen helburua bete dela ere. Justifikazio hori egin ezean, Erandioko Udalak ezin izango du beste dirulaguntzarik eman.
- c) Diruz lagundutako egitasmoa garatzeko eta bere zehaztapenak betetzeko behar diren baimen guztiak lortzea.
- d) Organo emaileak egin beharreko egiaztapen-jarduerak onartzea, hala badagokio, bai eta kontrol-organo eskudunek egin dezaketen finantza-egiaztapen eta kontroleko beste edozein jardura ere, eta aurreko jarduerak gauzatzean eskatzen zaion informazio guztia ematea.

- e) Diruz lagundutako egitasmoa finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik lortu bada, horren berri ematea. Jakin bezain laster eman beharko da horren berri, eta, nolanahi ere, jasotako funtsei emandako erabilera justifikatu aurretik.
- f) Dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena eman aurretik, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzea, erregelamenduak zehaztutako moduan.
- g) Udalak berak egiaztatuko du pertsona edo erakunde onuradunak Erandioko Udal Ogasunarekin dituen betebeharrak egunean dituela. Zerga-betebeharrak betetzen ez badira, hamar eguneko epea emango da betebeharrak horiek betetzeko, oinarri arautzaile espezifikoek beste eperen bat xedatzen dutenean izan ezik.
- h) Kontabilitate-liburuak, erregistro izapidetuak eta gainerako dokumentuak behar bezala ikuskatuta izatea, pertsona edo erakunde onuradunari kasu bakoitzean aplikatu beharreko merkataritzako eta sektoreko legeriak eskatzen duen moduan, bai eta dirulaguntzen oinarri arautzaileek eskatzen dituzten kontabilitateko egoera-orri eta erregistro espezifiko guztiak ere, egiaztatzeko eta kontrolatzeko ahalmenak behar bezala baliatzen direla bermatzeko.
- i) Jasotako fondoen aplikazioa justifikatzeko dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztatze eta kontrol-jardunen xede izan daitezkeelako.
- j) Diruz lagundutako egitasmoaren zabalkunderako ekintzetan jasota geratuko da Erandioko Udalak dirulaguntza eman duela, eta Udala identifikatzen duen logotipoa erabiliko da euskarri guztietan.
- k) Erandioko Udalaren dirulaguntzak ematea arautzen duen Ordenantza Orokorrean eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean 37. artikuluan jasotako kasuetan jasotako funtsak itzuliko dira.
- l) Dirulaguntza onartzea, ematetik eratorritako baldintzen ondorioetarako. Besterik adierazi ezean, emakida jakinarazi eta gehienez ere hamabost eguneko epean esanbidezko uko-egiterik egiten ez bada, ukoa onartutzat joko da.
- m) Garatu beharreko jardura motan aplikatu beharreko indarreko araudi espezifikoak betetzea.
- n) Eskatzen zaion kasuetan, Udalarekin lankidetzan aritzea, dirulaguntzaren xedeari buruzko beharrezko informazioa emanez, eta behar diren ikuskapen-jarduketak egitea.
- o) Erandioko Udalari berri ematea dirulaguntza emateko aintzat hartutako edozein egoera objektibo zein subjektibo aldatuz gero.
- p) Eduki politiko edo errebindikazioko elementurik ez sartzea, edozein joeratakoa delarik, diruz lagundutako egitasmoarekin zerikusi duten argitaratutako idazki, iragarki, ohar, propaganda (ahozkoa nahiz idatzizkoa izan) eta bestelako komunikazioetan. Era berean, pankartarik edo bestelako elementurik ez da erakutsiko garatu bitartean.
- q) Egitasmoaren barruko jarduerak garatzean, pertsonaren oinarritzko eskubideekiko behar den errespetua erakustea eta indarrean diren legeak errespetatzea.
- r) Baimenean ezarritako hizkuntza-arauak eta -irizpideak betetzea, eta diruz lagundutako egitasmoak eragindako dokumentu, euskarri, publizitate eta ekitaldi publikoetan bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko berdintasun-araubideari eustea. Kasuan kasu, euskara hutsean egin ahal izango da.
- s) Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egitea.

- t) Aplikatu beharreko indarreko araudi guztia errespetatzea. Bereziki 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa.
- u) Erandioko Udalak dirulaguntzaren erabilera egokia eta diruz lagundutako egitasmoaren garapen egokia bermatzeko ezartzen dituen beste batzuk.

Bigarrena.- Deialdi honi behar besteko hedapena emateko, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Udalaren web orrian eta iragarki-taulan argitaratu beharko da.

Hirugarrena.- Ebazpen hau ondokoei jakinaraztea bidezko diren ondorioak izan ditzan: Ogasun Sailari eta Herritaren Lan-arloko Sailei. Era berean, Idazkaritza Sailari eta jakinaraziko zaio, kontu hartu eta Alkateak zein korporazioko kide eskuordetuak emandako Ebazpenen Liburuan jasota gera dadin.

Alkateak hala dekretatu eta izenpetu du.

Erandion, 2025eko urtarrilaren 28an.

Alkatea
Aitziber Oliban Gutierrez

Kontu hartu dut, martxoaren 16ko 128/2018

Errege Dekretuaren 3.2.e) artikulua betez

Behin-behineko idazkaria
Javier Basante Otegi

ERANSKINAK

BALORAZIO-IRIZPIDEAK

Balorazio-irizpideak bi bloketan banatuko dira, ahalik eta gehien tabulatu eta objektibatu ahal izateko: erakundearekin lotutakoak (A) eta egitasmoari lotutakoak (B).

A. Erakundearekin lotutako irizpideak (guztizko puntuazioaren % 25)

Puntuazioa,
gehienez:

60

A.1.	Elkartearen dimentsioa		10
	— Bazkide kopurua. Kirol arloan, lizentzia kopurua	3	
	• 50 kide / lizentzia edo gutxiago	1	☐
	• 51etik 100era	2	☐
	• 100 baino gehiago	3	☐
	— Elkartearen ibilbidearen urte-kopurua (etenik gabe)	4	
	• 1 - 3 urte	0,5	☐
	• 4 - 10 urte tartean	1	☐
	• 11 - 20 urte tartean	2	☐
	• 21 - 30 urte tartean	3	☐
	• 31 urte baino gehiago	4	☐
	— Bazkideen batez besteko adina	2	
	• 35 urte baino gutxiago	2	☐
	• 36 eta 55 urte artean	1,5	☐
	• 56 urtetik gora	1	☐
	— Lokala (lagata eta/edo norberarena)	3	
	• Udalak edo beste erakunde batek lagata	0	☐
	• Udalerriko beste elkarte batekin partekatuta	1	☐
	• Lokalik gabe	2	☐
	• Jabetza pribatua	3	☐
A.2.	Elkarlana eta partaidetza		10
	— Berdintasun kontseiluan parte hartzea	10	☐
A.3.	Entitate eskatzailearen hedapena		6
	— Bide tradizionalen bidez (prentsa, kartelak, etab.)	2	☐
	— Teknologia berrien bidez (web, bloga, instagram, ...)	4	☐
A.4.	Baliabide ekonomikoak		14
	— Eskatzailearenak (kuotak, loteria, txosnak, zozketak, ...)	6	
	• Ekimen bakoitzeko	2	☐
	— Erakunde publikoen laguntzak	6	
	• Erakunde bakoitzeko	2	☐
	— Babesletzak, ekarpen pribatuak edo beste batzuk	6	
	• Ekimen bakoitzeko	2	☐
A.5.	Euskararen erabilera/sustapena		20
	— Proiektuaren helburu nagusiak bat egiten du euskararen sustapen eta erabilerarekin herrian.	10	☐
	— 2025eko Euskaraldiaren ANTOLAKETAN parte hartzea	5	☐
	— 2025eko Euskaraldiaren EKINTZETAN parte hartzea	5	☐
	— Euskararen egunean parte hartzea: antolaketa zein ekintzetan	5	☐

A.6.	Berdintasunaren sustapena eta aniztasunari arreta ematea	10
	— Erakundeko emakumeen ehunekoa % 40 baino gehiago	5 ☐
	— Emakumeen % 40 edo gehiago zuzendaritza-batzordean	5 ☐

B1 – KIROLA eta KULTURA

B1. Egitasmoei dagozkien irizpideak (guztizko puntuazioaren % 75)

Puntuazioa,
gehienez:

120

B1.1.	Eragin soziala eta udal-nortasuna	48
	— Eragina udalerrian	6 ☐
	• Auzo bakar batean	2 ☐
	• Auzo batean baino gehiagotan	4 ☐
	• Udalerrri osoan	6 ☐
	— Gizarte-esparrua (nori zuzenduta)	3 ☐
	• Bazkideei	0 ☐
	• Herritarrei	3 ☐

—	Proiektuaren zabalkuntza	8	☐
KULTURA		KIROLA	
• Prentsa	1	Herrian	2 ☐
• Karteleria	1	Lurraldean	4 ☐
• Eskuko programak	1	Euskal Herriko komunikabideetan	6 ☐
• Weg gunea	1		☐
• Sare sozialak	1		☐
• Irrati iragarkiak	1		☐
• Erandioko buletina	4		☐
—	Aurreikusitako bazkide/kirol federatuen parte-hartzaile kopurua	10	☐
KULTURA		KIROLA	
• 25 - 75		19 edo gutxiago	2 ☐
• 76 - 125		20 - 39	4 ☐
• 126 - 200		40 - 59	6 ☐
• 201 - 300		60 - 79	8 ☐
• 301 baino gehiago		80 edo gehiago	10 ☐

— Aurreikusitako ikusle/hartzaile kopurua		— Erandion errolatutako kirolarien ehunekoa (aurrekoarekiko)		10	
<u>KULTURA</u>		<u>KIROLA</u>			
• 25 - 75	2	% 29 edo gutxiago	2		☐
• 76 - 125	4	%30 - %49 bitartean	4		☐
• 126 - 200	6	%50 edo gehiago	6		☐
• 201 - 300	8				☐
• 301 baino gehiago	10				☐

— Biztanleriaren sektore bereziei zuzenduta dago		10	
• Baztertze arriskuan dauden pertsonak	4		☐
• Adingabeak edo gazteak	4		☐
• Adinekoak	4		☐
• Migratutako pertsonak	4		☐
• Beste batzuk (zehaztu) _____	4		☐
— Iraupena		5	
• 6 ordu baino gutxiago	2		☐
• 6 ordu baino gehiago edo egun bat	3		☐
• 2 egun	4		☐
• 2 egun baino gehiago	5		☐
— Aldizkakotasuna		5	
• Urtean 3 aldiz edo gutxiago	1		☐
• Urtean 4 aldiz	2		☐
• Hilean behin	3		☐
• Astean behin	4		☐
• Astean bi aldiz edo gehiago	5		☐
B1.2. Balorazio eta bideragarritasun ekonomikoa		12	
— Aurrekontua eta eskatutako laguntzaren arteko proportzioa		12	
• 0,0 - 0,2	12		☐
• 0,2 - 0,4 (lehen zifratik gora)	10		☐
• 0,4 - 0,6 (lehen zifratik gora)	8		☐
• 0,6 - 0,8 (lehen zifratik gora)	6		☐
• 0,8 - 1,0 (lehen zifratik gora)	4		☐
B1.3. Beste erakundeekiko lankidetzak		20	
— Beste erakunde batekin edo gehiagorekin		10	
• 2 - 5 artean	5		☐
• 5 baino gehiago	10		☐
— Egitasmoa garatuko duten pertsona boluntarioen kopurua (elkartea Boluntariotzako Erakundearen Errolda Orokorrean inskribaturik izan behar da)		14	
• 8 edo gehiago	6		☐
• Erandion erroldatutako bakoitzeko	2		☐
B1.4. Egitasmoaren egokitasuna eta berrikuntza		40	
— Egitasmo berritzailea (antzekorik ez egotea)		6	
• Proiektu berria edo berrikuntzak dakartzana	3		☐
• Eskatzaileak baino ez du halakorik egiten	3		☐
— Egitasmoaren izaera eta helburuak		16	
• Egitasmoaren deskribapen zehatza eta argia	4		☐
• Helburuak zehazten ditu	4		☐
• Egitasmoaren egutegia edo kronograma aurkeztu	4		☐
• Hartzaileak edo onuradunak zehazturik	4		☐
• Baliabideak aurkeztu: giza-baliabideak, teknikoak, ekonomikoak, ...	4		☐
• Herriaren kultur tradizioekin lotua	4		☐

— Ingurumenaren-eragina eta ekonomia zirkularra		8	
• Hondakinak minimizatzea eta kudeaketa egokia: birziklatu, ...	4		☐
• Gastuen %50, gutxienez, herrian egiteko konpromisoa	4		☐
• Egitasmoak kontuan hartzen ditu ingurumen irizpideak	4		☐
• Egitasmoak barne hartzen ditu ekosistemak zaintzeko irizpideak	4		☐
— Teknologia berrien erabilera egitasmoaren garapenean		3	
• Internet, sare sozialak, app-ak, ...	3		☐
— Berdintasuna irizpideak		8	
• Berdintasuna eta emakumeen aurkako indarkeriarik eza sustatu	6		☐
• Kontziliazio neurrik islatzen ditu (haurtzaindegi zerbitzua, ...)	2		☐
— Hizkuntza ofizialen erabilera		5	
• Egitasmoa euskaraz garatuko da	5		☐
• Egitasmoa euskaraz eta gaztelaniaz garatuko da	2		☐

B2 – HEZKUNTZA

B2. Egitasmoei dagozkien irizpideak (guztizko puntuazioaren % 75)

Puntuazioa,
gehienez:**120**

B2.1. Eragin soziala eta udal-nortasuna		64	
— Eragina udalerrian		10	
• Ikastetxean bertan	6		☐
• Auzoan	8		☐
• Udalerrri osoan	10		☐
— Gizarte-esparrua (nori zuzenduta)		10	
• Ikastetxeko irakasleei	4		☐
• Irakasle ez den pertsonalari	8		☐
• Ikasleei edo/eta gurasoei, zein Erandioko gainerako ikasleei ere	10		☐
— Proiektuaren zabalkuntza		10	
• Kartelak	2		☐
• Iragarki taula	2		☐
• Eskola Agenda	3		☐
• Zirkularra	3		☐
• Bilerak	4		☐
• Telefonoz, e-postaz	4		☐
• Sare sozialak	5		☐
— Prestaketan aurreikusitako parte-hartzaile kopurua		10	
• 25 - 75	2		☐
• 76 - 125	4		☐
• 126 - 200	6		☐
• 201 - 300	8		☐
• 301 baino gehiago	10		☐
— Aurreikusitako Ikusle/hartzaile kopurua		10	
• 25 - 75	2		☐
• 76 - 125	4		☐

	• 126 - 200	6		☐
	• 201 - 300	8		☐
	• 301 baino gehiago	10		☐
	— Biztanleriaren sektore bereziei zuzenduta dago		10	
	• Atal honetan ikastetxe eta guraso elkarte guztiei 10 puntu jarriko zaie.	-		☐
	— Iraupena		5	
	• 6 ordu baino gutxiago	2		☐
	• 6 ordu baino gehiago edo egun bat	3		☐
	• 2 egun	4		☐
	• 2 egun baino gehiago	5		☐
	— Aldizkakotasuna		5	
	• Urtean 3 aldiz edo gutxiago	1		☐
	• Urtean 4 aldiz	2		☐
	• Hilean behin	3		☐
	• Astean behin	4		☐
	• Astean bi aldiz edo gehiago	5		☐
B2.2. Balorazio eta bideragarritasun ekonomikoa			12	
	— Aurrekontua eta eskatutako laguntzaren arteko proportzioa		12	
	• 0,0 - 0,2	12		☐
	• 0,2 - 0,4 (lehen zifratik gora)	10		☐
	• 0,4 - 0,6 (lehen zifratik gora)	8		☐
	• 0,6 - 0,8 (lehen zifratik gora)	6		☐
	• 0,8 - 1,0 (lehen zifratik gora)	4		☐
B2.4. Egitasmoaren egokitasuna eta berrikuntza			44	
	— Egitasmo berritzailea (antzekorik ez egotea)		6	
	• Proiektu berria edo berrikuntzak dakartzana	3		☐
	• Eskatzaileak baino ez du halakorik egiten	3		☐
	— Egitasmoaren izaera eta helburuak		16	
	• Egitasmoaren deskribapen zehatza eta argia	4		☐
	• Helburuak zehazten ditu	4		☐
	• Egitasmoaren egutegia edo kronograma aurkeztu	4		☐
	• Hartzaileak edo onuradunak zehazturik	4		☐
	• Baliabideak aurkeztu: giza-baliabideak, teknikoak, ekonomikoak, ...	4		☐
	• Herriaren kultur tradizioekin lotua	4		☐
	— Ingurumenaren-eragina eta ekonomia zirkularra		8	
	• Hondakinak minimizatzea eta kudeaketa egokia: birziklatu, ...	4		☐
	• Gastuen %50, gutxienez, herrian egiteko konpromisoa	4		☐
	• Egitasmoak kontuan hartzen ditu ingurumen irizpideak	4		☐
	• Egitasmoak barne hartzen ditu ekosistemak zaintzeko irizpideak	4		☐
	— Teknologia berrien erabilera egitasmoaren garapenean		3	
	• Internet, sare sozialak, app-ak, ...	3		☐
	— Berdintasuna irizpideak		8	
	• Berdintasuna eta emakumeen aurkako indarkeriarik eza sustatu	6		☐

	• Kontziliazio neurrik islatzen ditu (hautzaindegi zerbitzua, ...)	2		☐
	— Hizkuntza ofizialen erabilera		10	
	• Egitasmoa euskaraz garatuko da *	10		☐

* Hezkuntzako proiektuak euskaraz garatu beharko dira

B3 – GIZARTE EKINTZA - GARAPENERAKO LANKIDETZA

B3. Egitasmoei dagozkien irizpideak (guztizko puntuazioaren % 75)

			Puntuazioa, gehienez:	120
B3.1. Eragin soziala eta udal-nortasuna			48	
	— Eragina lurraldean		3	
	• Udalerriko auzo bakar batean	1		☐
	• Udalerriko auzo batean baino gehiagotan edo udalerri osoan	2		☐
	• Probintzian	3		☐
	— Gizarte-esparrua (nori zuzenduta)		6	
	• Norbanakoari	2		☐
	• Familia esparruari	4		☐
	• Komunitate esparruari	6		☐
	— Proiektuaren zabalkuntza		8	
	• Euskal Herriko komunikabideetan	6		☐
	• Lurraldean	4		☐
	• Herrian	2		☐
	— Aurreikusitako parte-hartzaile/onuradun kopurua		10	
	• 25 - 75	1		☐
	• 76 - 125	2		☐
	• 126 - 200	3		☐
	• 201 - 300	4		☐
	• 301 edo gehiago	5		☐
	— Zeharkako parte hartzaileak/onuradunak		10	
	• 25 - 75	1		☐
	• 76 - 125	2		☐
	• 126 - 200	3		☐
	• 201 - 300	4		☐
	• 301 edo gehiago	5		☐
	— Biztanleriaren sektore bereziei zuzenduta dago		10	
	• Adingabeak edo gazteak	4		☐
	• Adinekoak	4		☐
	• Zaurgarritasun egoeran dauden emakumeak	4		☐
	• Indigenen komunitateak	4		☐
	• Menpekotasuna edota desgaitasuna duten pertsonak	4		☐
	— Iraupena		10	
	• Egun bat	2		☐
	• 2 - 7 egun	3		☐

	• 7 - 15 egun	4		☐
	• 2 aste - hilabete 1	5		☐
	• Hilabetea - 3 hilabete	6		☐
	• 3 - 6 hilabete	7		☐
	• 6 - 9 hilabete	8		☐
	• 9 - 12 hilabete	9		☐
	• Urte bat edo gehiago	10		☐
B3.2. Balorazio eta bideragarritasun ekonomikoa				12
— Aurrekontua eta eskatutako laguntzaren arteko proportzioa		12		
	• 0,0 - 0,2	12		☐
	• 0,2 - 0,4 (lehen zifratik gora)	10		☐
	• 0,4 - 0,6 (lehen zifratik gora)	8		☐
	• 0,6 - 0,8 (lehen zifratik gora)	6		☐
	• 0,8 - 1,0 (lehen zifratik gora)	4		☐
B3.3. Beste erakundeekiko lankidetzak				20
— Beste erakunde batekin edo gehiagorekin		10		
	• 2 - 5 artean	5		☐
	• 5 baino gehiago	10		☐
— Egitasmoa garatuko duten pertsona boluntarioen kopurua (elkartea Boluntariotzako Erakundearen Errolda Orokorrean inskribaturik izan behar da)		14		
	• 8 edo gehiago	6		☐
	• Erandion erroldatutako bakoitzeko	2		☐
B3.4. Egitasmoaren egokitasuna eta berrikuntza				40
— Egitasmo berritzailea (antzekorik ez egotea)		6		
	• Proiektu berria edo berrikuntzak dakartzana	3		☐
	• Eskatzaileak baino ez du halakorik egiten	3		☐
— Egitasmoaren izaera eta helburuak		16		
	• Egitasmoaren deskribapen zehatza eta argia	4		☐
	• Helburuak zehazten ditu	4		☐
	• Egitasmoaren egutegia edo kronograma aurkeztu	4		☐
	• Hartzaileak edo onuradunak zehazturik	4		☐
	• Baliabideak aurkeztu: giza-baliabideak, teknikoak, ekonomikoak, ...	4		☐
	• Herriaren kultur tradizioekin lotua	4		☐
— Ingurumenaren-eragina eta ekonomia zirkularra		8		
	• Hondakinak minimizatzea eta kudeaketa egokia: birziklatu, ...	4		☐
	• Azpiegiturak hobetzea eta modu iraunkorrean ekoizteko eta kontsumitzeko gai diren oinarritzko zerbitzuak eskuratzea	4		☐
	• Justizia soziala eta biztanleriaren oinarritzko beharrak gogobetetzea	4		☐
	• Garapenerako aukerak sortzen laguntzea, hezkuntza inklusiboaren eta lan duinaren bidez	4		☐
— Eragin soziala		8		
	• Gizarte eragilearen arteko lankidetzak sustatzen du (tokiko erakundeak eta kontrako alderdiak), bake giroa sortzeko gosea eta pobrezia desagerrarazteko eta oinarritzko eskubideak eskuratzeko	8		☐

—	Berdintasuna irizpideak	5	
•	Berdintasuna eta emakumeen aurkako indarkeriarik eza sustatu	5	☐
—	Hizkuntzak	5	
•	Eskualdeko jatorrizko hizkuntzak (gehiengodunak edo gutxituak) errespetatzea eta erabiltzea	5	☐

Oharra, elkarte bakoitzaren puntuazioa kalkulatzekoan


Benetako puntuazioaren kalkulua egiteko honako eragiketa hauek egingo dira:

A ataleko puntuazioa bider *guztiko puntuazioaren ehunekoa* (25) zati atalaren gehieneko puntuazioa (60)

B ataleko puntuazioa bider *guztiko puntuazioaren ehunekoa* (75) zati atalaren gehieneko puntuazioa (120)

Ohar argigarriak:

Plangintza-prozesuak hainbat zehaztapen-maila ditu, jarraian zehazten direnak:



- *Plana*: planteamendu globala, izaera orokorrekoa, jardura-ildoak, lehentasunak, baliabideen esleipena, ekintza-estrategiak eta abar jasotzen dituen.
- *Programa*: elkarrekin lotutako eta antzeko proiektuen multzo antolatu eta koherentea.
- *Egitasmoa (proiektua)*: elkarrekin erlazionatuta eta koordinatuta dauden jardura zehatzen multzoa, iraupen jakinekoa eta helburu espezifiko bat lortzera bideratua.
- *Jardura*: egitasmo baten xede eta helburu espezifikoak lortzeko beharrezkoa den ekintza.
- *Zeregina*: zehaztasun eta espezifikotasun handiena duen ekintza da.

Adibidea:

- *Plana*: dirulaguntzen plan estrategikoa.
- *Programa*: hezkuntza arloko esku-hartze programa.
- *Egitasmoa*: elkarbizitza-proiektua.
- *Jardura*: festa bat antolatzea.
- *Zeregina*: festarako jatekoa eta edatekoa erostea.

Deialdi honetan egitasmoak soilik baloratuko dira. **Jardura edo zeregin isolatuek ez dute dirulaguntzarik jasoko.**

Glosarioa:

- **Bazkidea**: elkarte/erakundean izena emandako pertsona edo bertako kide dena.

- Lokala: elkarteak edo erakundeak bere ohiko jarduera guztia edo zati bat egiteko erabiltzen duen espazioa.
- IKT: Informazio eta komunikazio teknologiak
- Jardueraren eragina: udal mailan, edo haratago, auzoetan sortutako efektua.
- Boluntarioa: jarduera antolatzen eta kudeatzen laguntzen duen pertsona.
- Zeharkako parte hartzaile/onuradunak: zeharkako onuradunak bizi diren habitataren baldintzetan hobekuntza hautematen dutenak izango dira, proiektuak gauzatzen direnetik aurrera.